

ARTXIPI PARKEAREN EGOERAREN INGURUKO MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko uztailaren 11an Gune Publikoen batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Molinao errekatxoaren ondoan, altzatar eta pasaitar askok erabiltzen duten Artxipi parkea dago. Parkeko egoera kaxkartuz joan da eta futbol-zelaia, haur jolasak eta pick-nick mahaiak hondatu egin dira. 2012an zonaldea garbitu egin zen Parke eta Lorategien Sailaren bitartez, baina gaur egun parkea egoera tamalgarrian dago berriro ere. Hori dela eta, hainbat eskaera jaso dira herritarren aldetik parkearen gutxieneko mantenimendua eta zainketa egin dadila eskatuz.

EAJ alderdiak kezka handia adierazi zuen parkearen egoerarekiko aurreko legegintzaldian, *“hondatze egoera lehenbailehen konpondu behar zela”* eskatuz, baina Alkatetzan daraman urte honetan ez du ezer ere egin parkearen egoera hobetzeko.

Uztailaren 11n, Eneko Goia alkatea interpelatu genuen batzorde batean eta hark erantzun zuen *“epe laburrean zerbait egiteko asmoa”* zutela.

Horrez gain, berriki jakin dugu Ekologistak Martxan eta Eguzki taldeek salaketa jarri dutela bi enpresa Molinao errekatxoan legez kanpoko ur-zikin isuriak egiten ari direlako. Hain zuzen ere, Ura Agentziak isuri horiek aztertu ditu eta txosten bat bidali du Udalera, ingurumen aldetik egoerak duen larritasuna adieraziz, eta isuriaren kudeaketa Udalaren ardura dela gogorarazi du.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari urtea amaitu baino lehen txukundu eta garbitu dezala Artxipi parkea.
2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Ura Agentziak maiatzaren 11n bidalitako txostenean aipatzen diren hiru neurriak martxan jar ditzala, Molinao errekatxoan

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

egiten ari diren legez kanpoko ur-isuriak eteteko eta Artxipi parkeko ingurumena zaintzeko.

Donostian, 2016ko uztailaren 15ean

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia